



**EKONOMIAREN GARAPEN,
JASANGARRITASUN
ETA INGURUMEN SAILA**
Industria Sailburuordetza
*Proiektu Estrategikoen eta Industria
Administrazioaren Zuzendaritza*

**DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD
Y MEDIO AMBIENTE**
Viceconsejería de Industria
*Dirección de Proyectos Estratégicos y
Administración Industrial*

AZALPEN GIDA:

AGINDUA, 2023KO MARTXOAREN 14KOA, EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMENEN SAILBURUARENA, ZENBAIT ALDERDI GARATZEN DITUENA, 513/2017 ERREGE DEKRETUAREN BIDEZ ARAUTZEN DIREN SUTEETATIK BABESTEKO INSTALAZIOEN ESPARRUAN



AURKIBIDEA:

GIDA HONEN XEDEA ETA EGITURA

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMENENKO SAILBURUAREN 2023KO MARTXOAREN 14KO AGINDUAREN ARTIKULUAK. AGINDU HORREN BIDEZ, 513/2017 ERREGE DEKRETUAK ARAUTUTAKO SUTEETATIK BABESTEKO INSTALAZIOEN ESPARRUAN ALDERDI JAKIN BATZUK GARATZEN DIRA.

I. KAPITULUA: XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua– Xedea.
2. artikulua– Aplikazio-eremua.

II. KAPITULUA: SUTEETATIK BABESTEKO INSTALAZIOEN DOKUMENTAZIO TEKNIKOA

3. artikulua– Nahitaezko dokumentazioa.
4. artikulua– Lehendik zeuden instalazioak.
5. artikulua– Instalazio berriak.

III. KAPITULUA: SUTEETATIK BABESTEKO INSTALAZIOEN KONTROLA

6. artikulua– Araubide juridikoa.
7. artikulua– Ikuskapen-aktak.
8. artikulua– Ikuskapenean dokumentuak egiaztatzea.
9. artikulua– Ikuskapenaren emaitza jakinaraztea Administrazioari.
10. artikulua– Akats oso larriak.
11. artikulua– Akats larriak.
12. artikulua– Akats arinak.
13. artikulua– Dokumentazio-arloko ez-betetzeak.

IV. KAPITULUA: ERREGISTRATU GABEKO SUTEETATIK BABESTEKO INSTALAZIOAK

14. artikulua– Definizioa.
15. artikulua– Araubide juridikoa.
16. artikulua– Erregistratu gabeko instalazio baten berri jakinaraztea.
17. artikulua– Erregistratu gabeko instalazioen titularrek izan beharreko dokumentazioa.
18. artikulua– Instalazioa noiz jarri den zerbitzuan zehaztea.
19. artikulua– Erregistratu gabeko instalazioak inskribatzea.
20. artikulua– Erregistratu gabeko instalazioak kontrolatzea.

LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA.– Erregelamenduzko bateragarritasuna abenduaren 3ko 2267/2004 Errege Dekretuarekin.

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.– Eranskinak eguneratzea.

HIRUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.– Establezimendu industrialen suteen aurkako segurtasuneko Erregelamendua onartzen duen abenduaren 3ko 2267/2004 Errege Dekretuari egindako aipamenak.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

AZKEN XEDAPENA.– Indarrean jartzea.

I. GIDAREN ERANSKINA: KOMUNIKAZIO-EREDUA.

II. GIDAREN ERANSKINA: SABLEn DOKUMENTAZIOA ETA ERREGISTROA, ANTZINATASUNAREN ARABERA.



GIDA HONEN XEDEA ETA EGITURA

Gida honen bidez, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saileko Proiektu Estrategikoen eta Industria Administrazioaren Zuzendaritzak dokumentu bizi bat garatu nahi du, aldizkako eguneratzeen bidez, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2023ko martxoaren 14ko Agindua (aurrerantzean, AGINDUA) irakurrita sor daitezkeen zalantzak argitzeko. Agindu horren bidez, 513/2017 Errege Dekretuak araututako suteetatik babesteko instalazioen esparruan alderdi jakin batzuk garatzen dira.

Horretarako, eta AGINDUAREN artikuluei jarraituz, aginduak ezarritakoa zabaldu eta argitzen da, lehen maila batean, beste dekretu, araudi espezifiko edo arau batzuei egindako erreferentzia espezifiko bidez, eta bigarren maila batean, aplikazioko argibideak, erreferentziak eta/edo adibideak txertatuz.

Adierazitako mailen egitura honela irudikatuko da:

2023ko martxoaren 14ko Aginduaren artikulua.

2023ko martxoaren 14ko Aginduaren artikulua testu literala.

Aginduan adierazitakoa garatzen edo argitzen duen beste araudi bateko artikuluen aipamena

Aipatu berri dugun Aginduaren artikulua garatzen, zabaltzen edo argitzen duen artikulua zehatzaren testua.

Aginduaren artikuluan eta beste araudi bateko artikuluen testuan adierazitakoa argitu, aipatu eta/edo aplikatzeko adibidea, garatzen edo argitzen duena.

Iruzkinetan, 2023ko martxoaren 14ko Aginduari buruzko aipamenak AGINDUA izenaren pean jasotzen dira.



**AGINDUA, 2023KO MARTXOAREN 14KOA, EKONOMIAREN GARAPEN,
JASANGARRITASUN ETA INGURUMENEN
SAILBURUARENA, ZENBAIT ALDERDI GARATZEN DITUENA, 513/2017
ERREGE DEKRETUAREN BIDEZ ARAUTZEN
DIREN SUTEETATIK BABESTEKO INSTALAZIOEN ESPARRUAN**

**I. KAPITULUA
XEDAPEN OROKORRAK**

1. artikulua.– Xedea.

1.– Agindu honen xedea da honako alderdi hauek arautzea beronen aplikazio-eremuan sartutako instalazioei buruz, betiere Segurtasun Industrialari buruzko ekainaren 30eko 81/2020 Dekretuan xedatutakoaren esparruan:

- a) Zer dokumentu tekniko eskatu behar zaien suteetatik babesteko instalazioen titularrei.
- b) Suteetatik babesteko instalazioetan aldizkako ikuskapenak egiteko araubidea garatzea, bai eta araubide horrekin lotutako titularren eta agente laguntzaileen betebeharrak ezartzea ere.
- c) Erregistratu gabeko suteetatik babesteko instalazioen araubide juridikoa.
- d) Erregistratu gabeko instalazioak erregistratzeko baldintzak.
- e) Arautzea zer egoeratan den bateragarria araudia sektoreko araudi espezifikoarekin.

2.– Ez da agindu honen xedea ezartzea zer baldintza bete behar dituzten eraikinek eta establezimenduek suteetatik babesteko instalazioak hornitzeko.

2. artikulua.– Aplikazio-eremua.

1.– Agindu hau Euskal Autonomia Erkidegoan dauden suteetatik babesteko instalazioei aplikatuko zaie, baldin eta maiatzaren 22ko 513/2017 Errege Dekretuaren 22. artikuluan edo hori ordeztzen duen arauan ezarritako aldizkako ikuskapenen araubidearen mende badaude (513/2017 Errege Dekretua, Suteetatik Babesteko Instalazioen Erregelamendua onartzen duena).

2.– Ez dira sartzen agindu honen aplikazio-eremuan abenduaren 3ko 2267/2004 Errege Dekretuaren aldizkako ikuskapenen araubidearen mende dauden suteetatik babesteko instalazioak, ez eta arau espezifikoaren bidez araututakoak ere (2267/2004 Errege Dekretua, Establezimendu industrialen suteen aurkako segurtasuneko Erregelamendua onartzen duena).

Oro har, suteen aurka babesteko berariazko legeriaren bidez arautzen ez diren instalazioei aplikatuko zaie AGINDUA, eta, zehazki:



- *Abenduaren 3ko 2267/2004 Errege Dekretua indarrean jarri aurretik eraikitako edo ezarritako industria-erabilerako establezimenduetan kokatutako instalazioak, hura aplikatzera behartu zuen moldaketarik, aldaketarik edo lekualdatzerik izan ez dutenak.*
- *Abenduaren 3ko 2267/2004 Errege Dekretua indarrean sartu zen egunean eraikitzen ari ziren industria-erabilerako establezimenduetan edo jarduera-lizentzia eskatuta proiektu-fasean zeuden instalazioak, baldin eta hura aplikatzera behartu duen moldaketarik, aldaketarik edo lekualdatzerik izan ez badute.*
- *Industria-erabilerako establezimenduetan kokatutako instalazioak, proiektu-fasean zeudenak. Azken hori herri-administrazioek onartu bazuten, edo profesionalen elkargoak ikus-onetsi bazuen abenduaren 3ko 2267/2004 Errege Dekretua indarrean sartu zenean, baldin eta Errege Dekretua indarrean jarri eta 6 hilabeteko epean jarduera-lizentzia eskatu bazuten, eta hura aplikatzera behartu duen moldaketarik, aldaketarik edo lekualdatzerik izan ez badute.*
- *Abenduaren 3ko 2267/2004 Errege Dekretuaren 2.3 artikuluan jasotako industria-jardueretan kokatutako instalazioak, suteen aurkako babesaren arloan berariazko erregulazioa dutenean izan ezik.*
- *Erabilera ez-industrialeko establezimenduetan kokatutako instalazioak, maiatzaren 22ko 513/2017 Errege Dekretuaren 22.2 artikuluan jasotako salbuespenekin. Aipatutako salbuespenei dagokienez, adierazi behar da, AGINDUAREN 6.3 artikuluan jasotzen den bezala, maiatzaren 22ko 513/2017 Errege Dekretuan eta, ondorioz, AGINDUAN aurreikusitako ikuskapen-araubidea aplikatu behar zaiela, baldin eta azalera horiek arrisku berezi handiko lokal bat ebakutzeko balio badute edo suteen aurkako babes-sistemaren parte den eraikin batean integratzen badira, betiere, azken kasu horretan, sistema hori maiatzaren 22ko 513/2017 Errege Dekretuan aurreikusitako ikuskapen-araubidearen mende badago.*

II. KAPITULUA

SUTEETATIK BABESTEKO INSTALAZIOEN DOKUMENTAZIO TEKNIKOA

3. artikulua.– Nahitaezko dokumentazioa.

1.– Suteetatik babesteko instalazioen titularrek agindu honetan, Segurtasun Industrialari buruzko ekainaren 30eko 81/2020 Dekretuan eta gainerako ordenamendu juridikoan aurreikusitako dokumentazioa izan behar dute, xedapen horietan ezarritako baldintzetan.

2.– Nahitaezko dokumentazioa izango da suteen aurkako babesaren arloan ezarritakoa betetzen dela egiaztatzeko aurkeztu edo eduki beharrekoa, bete behar diren xedapenekin bat etorritz.

| *Ikusi Gida honetan AGINDUAREN 4. artikulurako jasotako argibideak.*

4. artikulua.– Lehendik zeuden instalazioak.

1.– Agindu hau indarrean jarri aurretik zerbitzuan zeuden suteetatik babesteko instalazioen titularrek aplikatzekoa zaien araudian aurreikusitako dokumentazioa izan behar dute.

Nolanahi ere, eskubidea izango dute dokumenturik ez aurkezteko, lehendik Administrazioan aurkeztu badituzte, betiere Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.3 artikuluan aurreikusitakoari jarraikiz.

Gida honen II. eranskinean taula bat erantsi da. Bertan, titularrek suteen aurka babesteko instalazioaren antzinasunaren arabera izan behar duten dokumentazioa jasotzen da, kontuan hartu beharreko ohar hauekin:

- *Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuaren 2014ko uztailaren 30eko Aginduaren bidez, Industrialak ez diren eraikinetan suteen aurka babesteko instalazioaren ziurtagiriaren eredia onartu zen, eta ziurtagiri horrekin batera memoria teknikoa eta eskala egokiko planoak aurkeztu behar direla. Agindu horrek 2014ko abuztuaren 26tik 2023ko uztailaren 1era arte izan ditu ondorioak; beraz, aipatutako daten artean sinatutako ziurtagiriei aplikatuko zaie adierazitako betebeharra.*
- *Suteen aurka babesteko instalazio batzuk, duten antzinasuna dela eta, lehen ikuskapena egin behar izan zaiela jada, maiatzaren 22ko 513/2017 Errege Dekretuaren laugarren xedapen iragankorrean jasotakoarekin bat etorriz. Beraz, horien nahitaezko dokumentazioaren artean egon behar da kontrol-erakunde batek egindako lehen ikuskapen-akta bat.*

2.– Erregistratu gabeko instalazioen kasuan, agindu honen 17. artikuluan xedatutakoa bete beharko da.

Erregistratu gabeko instalaziotzat hartu behar da:

- *Egikaritzeko unean Sail honetan erregistratzera behartzen zuen inolako araudirik ez zuen instalazioa. Horren adibide dira, adibidez, industria-establezimenduetan suteen aurka babesteko instalazioak, suteen aurka babesteko instalazioei buruzko Erregelamendua onartzen duen azaroaren 5eko 1942/1993 Errege Dekretua indarrean sartu aurretik egindakoak, edo EOA-SBB/96: Eraikinetan suteen aurka babesteko baldintzak zehazten dituen agindua indarrean sartu aurretik gauzatutako establezimendu ez-industrialetan kokatutako instalazioak.*
- *Instalazioa egikaritzeko unean Sail honetan erregistratzera behartzen zuen araudia izanik, ez zen betebehar hori bete. Horri dagokionez, adierazi behar da instalazioaren titularrak Industria arloan eskumena duen Sail honek emandako dokumenturik ez izateak, non instalazioaren erregistroari buruzko informazioa ematen da, ez du esan nahi instalazioa erregistratuta ez dagoenik. Hori dela eta, kasu horietan, instalazioaren erregistro-egoera kontsultatu behar da aldeztu aurretik instalazioaren kokapenari dagokion Industria Administrazioaren Lurralde Ordezkaritzako Suteen aurkako Babeserako Instalazioen atalean. Ikusi Gida honetan AGINDUAREN 9. artikuluko 2. apartaturako jasotako argibideak.*



5. artikulua.– Instalazio berriak.

1.– Agindu hau indarrean jarri ondoren zerbitzuan hasten diren suteetatik babesteko instalazioen titularrek, sektoreko erregelamenduan aurreikusitako dokumentazioaz gainera, dokumentu hauek izan behar dituzte:

a) Teknikari eskudun batek egindako memoria, honako hauek bilduko dituena: instalazioaren titularra; enpresa instalatzailea; erabilera industrialekoa ez den eraikinean edo haren eremuan babestu beharreko arearen hedadura, eta zerbitzuan jarriko den suteetatik babesteko instalazioaren irismena, azalera (m²) eta kokalekua. Memoria horretan zehaztuko dira, halaber, instalatutako ekipamendu eta sistemak, haien ezaugarri teknikoak, markak, egokitasun-ebaluazio teknikoak, halakorik balego, eta merkataritza-markak eta modeloak. Memorian adieraziko dira, orobat, instalazioen dimentsionamenduan egindako kalkulu teknikoak.

b) Teknikari eskudunak egindako planoak, eta, horien artean, honako hauek:

b.1.– Kokapen-planoa eta kokaleku-planoa.

b.2.– Suteetatik babesteko ekipamendu eta sistemen planoak: oin-planoak, osagaien kokapena zehaztuta, eta ekipamenduen eta sistemen irismena eta jarduketak zedarrituta babestu beharreko eremu eta guneei dagokienez, arauzko distantziak egiaztatzeko moduan. Hasiera-eskema, altxaera-planoak eta xehetasunekoak, hala behar izanez gero.

2.– Aurreko apartatuan aipatutako dokumentazioa prest eduki ezean, dokumentazio-arloko ez-betetzetat hartuko da, agindu honen 13. artikuluan xedatutakoari jarraituz, eta artikulua horretako 2. apartatuan aurreikusitako moduan zuzendu beharko da.

3.– Agindu hau indarrean jarri ondoren zerbitzuan jartzen diren instalazioei buruzko ziurtagiriak I. eranskineko ereduaren arabera egingo dira.

| *AGINDUAREN I. eranskina, instalazio berrietarako ziurtagiri eredia.*

III. KAPITULUA

SUTEETATIK BABESTEKO INSTALAZIOEN KONTROLA

6.artikulua.– Araubide juridikoa.

1.– Suteetatik babesteko instalazioen kontrola Segurtasun Industrialari buruzko ekainaren 30eko 81/2020 Dekretuaren 20. artikuluan berariaz aurreikusitako modalitateen bitartez egingo da, bai eta agindu honetan edo sektoreko gainerako erregelamenduetan aurreikusitako modalitateen bitartez ere.

2.– Agindu honen aplikazio-eremuan sartzen diren suteetatik babesteko instalazioen aldizkako ikuskapenak 513/2017 Errege Dekretuaren 22. artikuluan eta, hala badagokio, haren laugarren xedapen iragankorrean xedatutakoari jarraituz egingo dira.

| *Aldizkako ikuskapenak egiteko prozedura UNE 192005-2 arauan jasota dago.*



3.– Instalazioei, 513/2017 Errege Dekretuaren 22. artikuluko bigarren apartatuan zehazten diren erabilera eta ezaugarriak izan arren, 513/2017 Errege Dekretuan jasotako ikuskapen-araubidea aplikatuko zaie, baldin eta instalazio horien azalerak baliagarriak badira arrisku berezi handiko lokal bat ebakutzeko, edo eraikin batean integratuta badaude eta hark duen suteetatik babesteko sistemaren parte badira, betiere, azken kasu horretan, sistema hori 513/2017 Errege Dekretuan aurreikusitako ikuskapen-araubidearen mende badago.

Aurreko paragrafoan aurreikusitakoa aplikatzekoa izango da, nahiz eta erabilera bakoitzari lotutako instalazioek titular desberdinak izan.

4.– Honako instalazio hauei, ordea, ez zaie aplikatuko 513/2017 Errege Dekretuan jasotako ikuskapen-araubidea:

a) Sutearen aurkako babesaren arloko lege espezifikoaren mende dauden instalazioak, nahiz eta kokatuta dauden eraikinaren suteetatik babesteko sistema 513/2017 Errege Dekretuaren 22. artikuluan aurreikusitako ikuskapenen mende egon.

b) Instalazioen araubide sektorialean ikuskapen bidezko kontrol bat jasotzen baldin bada, errege-dekretu horretan aurreikusitakoaren baliokidea dena gutxienez. Ikuskapen-kontrola gutxienez baliokidea dela zehazteko, aintzat hartuko dira, batetik, ikuskapenetan egiten diren egiaztapen teknikoak eta, bestetik, horiek dagokion araudi sektorialean gaitutako kontrol-organismo batek eginak izatea.

7. artikulua.– Ikuskapen-aktak.

1.– Ikuskapen baten ondorengo akta egiteko, Segurtasun Industrialari buruzko ekainaren 30eko 81/2020 Dekretuaren 24. artikuluan aurreikusitakoa beteko da.

[81/2020 DEKRETUA] 24. artikulua.– Ikuskapen-aktak.

1.– Ikuskapen guztietan, gertaerak deskribatzen dituen akta bat idatziko da, eta artikulua honetan xedatutakoaren arabera egingo da.

2.– Ikuskapen-aktak idatziz egingo dira, bitarteko elektronikoen bidez, non eta haien izaerak ez duen eskatzen adierazteko eta jasota geratzeko beste modu egokiagoren bat.

3.– Akten kopia bat egingo da eta hori segurtasun industrialeko jarduera edo instalazioaren titularri bidaliko zaio edo gaitutako ordezkariari, eta, hala dagokionean, enpresa mantentzaileari, hamabost eguneko gehieneko epean, ikuskapena egin zenetik kontatzen hasita. Akats oso larriak dauden kasuan, aktaren kopia dagokion ikuskapena amaitzen den unean bidaliko da, eta, kasu guztietan, ikuskapena amaitzen denetik hogeita lau ordu pasatu baino lehen.

4.– Alde batera utzita araudi sektorialean horretarako xeda daitekeena, akta bakoitzean hau jasoko da:

a) Akta sinatzen duen pertsonaren identifikazio-datuak, horretarako gaitzen duen titulazioa adierazita, elkargo kide-datuak eta, hala dagokionean, pertsona juridikoa zeinen kontura jarduten duen. Jarduketa pertsona batek baino gehiagok egiten badute, akta jarduketak zuzentzen dituenak sinatuko du eta pertsona horrek esku hartu duten gainerako pertsonen identitatea adieraziko du.

b) Akta egin zen lekua eta eguna.



c) Kontrola gauzaten den instalazio edo jardueraren datuak, eta jasota geldituko da, ahal denean, kontrol-jarduketa egin zaion pertsona fisiko edo juridikoaren informazio hau: izena eta abizenak edo izen soziala, nortasun agiri nazionala edo identifikazio fiskaleko zenbakia, segurtasun industrialeko jarduera, eta segurtasun industrialeko jarduera garatzen den edo segurtasun industrialeko instalazioa kokatzen den toki fisikoa.

d) Ikuskapenean jardun duen agenteari arreta eman dion pertsonaren identifikazio-datuak, elkarlanean aritzeko prest dagoenean, baita bere izaera edo ordezkariak ere zeinen titulupean esku hartzen duen.

e) Aztertutako gai edo alderdiak eta bestelako baldintzak, esaterako, adierazitako gertaeren ezagutza-iturrien deskribapena eta instalazioaren titularrak edo bere ordezkariak ikuskapen-bisitan zehar jarritako alegazioak edo egindako oharrak.

f) Akta sinatzen duenaren sinadura.

5.– Aktan hutsak zuzentzeko eskaera egiten bada, aktan jasoko dira ikusitako akatsak eta zer epetan zuzendu behar diren, eta eskaera horri ez bazaio erantzuten izan daitezkeen administrazio-erantzukizunen zerrenda.

6.– Jardun duen ikuskatzaileak egokitzat jotzen badu behin-behineko neurriak hartzea, aktan jasoko ditu bere erabakia arrazoitzeko baldintzak, neurri horien izaera eta irismena eta, hala dagokionean, aurkaratzeko interesdunak dituen tresnak.

7.– Alde batera utzi gabe Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 77.5 artikuluan ezarritakoa, ikuskapen-aktek ziurtasun-presuntzioa eta froga-balioa izango dute horietan adierazten diren gertaeren inguruan; halere, horiek batera baloratu beharko dira espedienteko froga-materialarekin batera.

2.– Alde batera utzi gabe 513/2017 Errege Dekretuaren 22. artikuluko 3. apartatuan aurreikusitakoa, instalazioaren mantentze-lanak egitea dagokion mantentze-enpresako pertsona eskudunak ere sinatu ahal izango du ikuskapen-akta, hura egiten den unean, eta betiere pertsona hori bertan badago.

8. artikulua.– Ikuskapenean dokumentuak egiaztatzea.

1.– Kontrol-organismoek egiaztatuko dute ikuskapenak egiten diren instalazioen titularrek badutela agindu honen 3. artikuluan aipatzen den nahitaezko dokumentazioa.

Ikuskapenaren helburua da egiaztatzea suteen aurka babesteko dauden ekipoak eta sistemek behar bezala funtzionatzeko prest daudela, behar bezala mantenduta daudela eta segurtasun industrialaren arloan aplikatu behar zaizkien betebeharrak betetzen dituztela.

Ikuskapenaren xedea ez da establezimenduek suteen aurka babesteko izan behar dituzten ekipamendu- eta sistema-hornidurak egiaztatzea, ez eta beste araudi batzuek, hala nola Eraikuntzaren Kode Teknikoak, Suteen aurkako Segurtasunari buruzko SI Oinarrizko Dokumentuaren bidez ezartzen dituzten baldintzak ere.



Gida honen II. eranskinean taula bat erantsi da. Bertan, titularrek suteen aurka babesteko instalazioaren antzinatasunaren arabera izan behar duten dokumentazioa jasotzen da. Ikusi Gida honetan AGINDUAren 4. artikuluko 1. apartaturako jasotako argibideak.

2.– Erregistratu gabeko instalazio batean egiten bada ikuskapena, kontrol-organismo jarduleak egiaztatuko du instalazioaren titularrak baduela agindu honen 17. artikuluan aurreikusitako dokumentazioa.

3.– Nahitaezko dokumentazioa falta dela egiaztatuz gero, kontrol-organismoak dokumentazio-arloko ez-betetzetat joko du, agindu honen 13. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

9. artikulua.– Ikuskapenaren emaitza jakinaraztea Administrazioari.

1.– Organo eskudunari jakinarazi behar zaio aldizkako ikuskapenen emaitza, urtarrilaren 16ko 5/2018 Dekretuan eta bete beharreko gainerako arauetan ezarritakoari jarraituz (5/2018 Dekretua, Industria-segurtasunari buruzko erregelamentazioa bete behar duten instalazio eta ekipoak aldizka ikuskatzeko kudeaketa-prozedurari buruzkoa).

[5/2018 DEKRETUA] 4. artikulua.– Aldizkako ikuskapenaren emaitza elektronikoki izapidetzea.

1.– Kontrol-erakundeak, edo agente ikuskatzaile gaituak, egiten dituzten aldizkako ikuskapen guztien datuak sartu beharko dituzte Eusko Jaurlaritzaren barruan industria-gaien gaineko eskumena duen sailak berariaz prestatutako aplikazio informatikoan. Datuak sartu ahal izateko, ziurtagiri digital onartua eduki beharko da.

2.– Instalazioa eta aplikatzea zaion erregelamentazioa identifikatu beharko dira, eta, halaber, akatsik dagoen ala ez eta nolako tipologiakoak diren kontuan izanda, ikuskapenaren emaitza aplikazioan sartzean zehaztu beharko da:

a) Akatsik gabe: akatsik atzeman ez denean.

b) Akats arinak: era horretako akatsak bakarrik atzeman direnean.

c) Akats larriak: akats larri bat behintzat atzematen denean; hala ere, akats arinik detektatzen bada, horiek ere jaso beharko dira. Kasu horretan, kontrol-erakundeak edo agente ikuskatzaile gaituak aplikazio informatikoan zehaztu beharko du agente kolaboratzaile gaituek akats horiek konponduta daudela egiaztatzeko ezarri den epea, inola ere 6 hilabetetik gorakoa izango ez dena.

d) Akats oso larriak: maila horretako akats bat behintzat atzeman denean. Emaidza hori sartuko da bakar-bakarrik akats oso larri horrek eragotzi ez badu instalazioaren ikuskapena osatzea.

3.– Ikuskapena egitean akats oso larriak aurkitzen badira, lehenbailehen sartu beharko dira datuak horretarako jarritako aplikazio informatikoan. Gainerako kasuetan, 15 eguneko epea egongo da, gehienez, datuak aplikazioan sartzeko.

Dokumentazioaren aldetik akatsak aurkitzen badira (nahitaezko dokumentazioa ez edukitzea, mantentze-lanei buruzko dokumentazioa eskura ez izatea barne), Akats Arinak bezala sartuko dira aplikazio informatikoan.

Ikuskapenaren emaitza honako esteka honetatik eskura daitekeen PI-CX izapidearen bidez jakinaraziko da:

<https://www.euskadi.eus/prozedura/pi-eu/web01-a2indust/eu/>

Horri buruzko zalantzarik izanez gero, instalazioaren kokapenari dagokion Industria Administrazioaren Lurralde Ordezkaritzako Suteetatik Babesteko Instalazioen Atalarekin jar zaitezke harremanetan:

- Araba: pci-alava@euskadi.eus
- Bizkaia: pci-bizkaia@euskadi.eus
- Gipuzkoa: pci-gipuzkoa@euskadi.eus

Era berean, akatsak edo dokumentazio-arloko ez-betetzeak zuzentzearekin lotutako gorabeherak ere jakinarazi beharko zaizkio organo eskudunari, hurrengo artikuluetan aurreikusitako moduan.

Bigarren ikuskaritzako aktak eta hurrengoei buruzko komunikazioak:

- Dokumentuen ez-betetzeak eta akats arinak zuzentzea.
- Titularrak akatsak zuzendu dituela epe barruan ez jakinaraztea.

Gida honen I. eranskinean, aipatutako kasuetarako komunikazio-eredua erantsi da, eta jakinarazpen horrek aipatzen duen aldizkako ikuskapenaren emaitza jakinarazteko irekitako PI-CX espedienteari erantsi behar zaio.

2.– Erregistratu gabeko instalazio baten ikuskapenaren emaitza Administrazioari jakinarazten zaionean, instalazio hori inskribatu beharko da, agindu honen 19. artikuluan aurreikusitakoari jarraituz.

Instalazioaren titularrak Industria arloan eskumena duen Sail honek emandako edo zigilatutako dokumenturik (instalazioaren erregistroari buruzko informazioa erakusten duena) eskura ez izateak ez du esan nahi instalazioa erregistratuta ez dagoenik; horregatik, kasu horietan, instalazioaren erregistroaren egoera kontsultatzea gomendatzen da, instalazioaren kokapenari dagokion Industria Administrazioaren Lurralde Ordezkaritzako Suteen aurkako Babeserako Instalazioen Atalean:

Araba: pci-alava@euskadi.eus

Bizkaia: pci-bizkaia@euskadi.eus

Gipuzkoa: pci-gipuzkoa@euskadi.eus

Erregistratu gabeko suteen aurkako babes-instalazioen kasuan, instalazio horietarako, egikaritzeko unean, Sail honetako suteen aurkako babes-instalazioen erregistroan inskribatu behar izatea behartzen zuen inolako araudirik ez zegoelako, ondokoa kontuan hartu behar da:

- Erregistro hori ez egotea ez da, inola ere, ikuskapen-aktan akats gisa tipifikatu behar.
- Baldin eta, dataren arabera, instalazioak ikuskapen periodikoa izan behar badu, indarrean dagoen aldizkako ikuskapenaren aktaren bidez



erregistratuko du instalazio hori Kontrol Erakundeak, agindu honen 9. eta 19. artikuluetan ezarritakoaren arabera, eta EZ du AGINDUaren 16. artikuluan aurreikusitako jakinarazpena egin beharko. Ikusi Gida honen II. ERANSKINA eta AGINDUAREN 16. artikulurako jasotako argibideak.

Azalpen honen hasieran adierazitako egiaztapena egin ondoren, erregistratu gabeko suteen aurkako babes-instalazio bat bada, eta bete ez bada Industriaren aurrean inskribatu izana, suteen aurkako babesari buruz indarrean dagoen araudian jasotakoa, ondokoa kontuan hartu behar da:

- *Aldizkako ikuskapen baten jarduera-esparruan, erregistro hori ez egotea dokumentazio-arloko akats gisa tipifikatu behar da ikuskapen-aktan.*
- *Gida honen II. eranskinean, suteen aurka babesteko instalazioaren tipologiaren eta antzinatasunaren arabera, instalazioaren titularrak Sail honetan erregistratzeko jarraitu behar duen tramitazioa jasotzen da.*
- *Aldizkako ikuskapenaren esparruan, instalazioaren titularrak, Baimendutako Kontrol Erakundearen aurrean eta Ikuskapen Aktan jasotako epean, egiaztatu beharko du instalazioa Sail honetako suteetatik babesteko instalazioen erregistroan erregistratu dela.*

10. artikulua.– Akats oso larriak.

1.– Kontrol-organismo jarduleak ikuskapen-aktan halakotzat jotzen dituenak izango dira akats oso larriak, hargatik eragotzi gabe agindu honetan edo sektoreko gainerako araudian horri buruz ezarritakoa betetzea.

2.– Ikuskapen-aktan oso larritzat edo oso larri modukotzat jotzen diren akatsak indarrean dauden arauetara jarraituz zuzendu beharko dira.

3.– Kontrol-organismoak honako hauek jakinarazi behar dizkio titularrari: akatsak zuzentzeko epea; akatsak zuzendu direla bigarren ikuskapen baten bidez berriro egiaztatu beharra, eta zuzenketa epe barruan ez egiteak izan ditzakeen ondorioak.

4.– Akatsak zuzendu ondoren, titularrak eskaera egingo dio akatsak aurkitu dituen kontrol-organismoari, zuzenketa egiaztatu dezan. Bigarren ikuskapen horren helburu bakarra akatsak behar bezala zuzendu direla egiaztatzea izango da; nolahi ere, ikuskapenean beste akats batzuk aurkituz gero, haiek ere identifikatu eta dagokion bezala kalifikatu beharko dira bigarren ikuskapenaren aktan.

Organo eskudunari jakinarazi behar zaio zein den akats-zuzenketaren egiaztapenaren emaitza, agindu honen 9. artikuluan ezarritako eran.

5.– Kontrol-organismoak uste badu akatsak ez direla zuzendu, horren berri emango du bigarren ikuskapenaren aktan. Halakoetan, titularrak berriz eskatu beharko du instalazioaren ikuskapen osoa egiteko.

Kontrol-organismo jarduleak uste badu ezen, zuzenketaren ondorioz, hasieran aurkitutako akatsei beste kalifikazio bat eman behar zaiela, hala jasoko du bigarren ikuskapenaren aktan. Erregelamenduz aurreikusitako epean eta moduan zuzendu beharko ditu akats horiek titularrak.



6.– Ikuskapen-aktan akatsak jaso dituen kontrol-organismoak egiaztatzen badu zuzentzeko epean ez zaiola jakinarazi akatsok zuzendu direla, zuzenketarik egin ez dela joko da ondore guztietarako. Halakoetan, titularrak berriz eskatu beharko du instalazioaren ikuskapen osoa egiteko.

Kontrol-organismoak horren berri eman beharko dio organo eskudunari, agindu honen 9. Artikuluan ezarritako eran.

Horren berri eman beharko zaio, halaber, instalazioaren titularrari.

7.– Sektoreko erregelamenduak bestela ezarri ezean, ezin izango zaio beste kontrol-organismo bati eskatu kontrol-lana egiteko, harik eta akatsak zuzendu direla egiaztatu arte edo, bestela, zuzentzeko epea bukatu arte.

Kontrol-erakundearen kontroltzat hartu behar da, halaber, akatsak zuzendu direla egiaztatzea. Horregatik, antzemandako akatsak zuzentzeko epea igaro ez den bitartean, akatsak zuzendu direla egiaztatzeko eta akatsen zuzenketaren egoera sail honi jakinarazteko, akatsak detektatu zituen kontrol-erakundeak egin beharko du jakinarazpena, eta ez beste kontrol-erakunde batek.

8.– Artikulu honetan aipatzen diren akatsak ez zuzentzeak berekin ekar dezake diziplina-prozedura industrial bat hastea, Segurtasun Industrialari buruzko ekainaren 30eko 81/2020 Dekretuaren 26. artikuluan aurreikusitakoari jarraituz, hargatik eragotzi gabe ez-betetze horiek ez zuzentzeak ekar litzakeen erantzukizunak.

11. artikulua.– Akats larriak.

1.– Kontrol-organismo jarduleak ikuskapen-aktan halakotzat jotzen dituenak izango dira akats larriak, hargatik eragotzi gabe agindu honetan edo sektoreko gainerako araudian horri buruz ezarritakoa betetzea.

2.– Ikuskapen-aktan larritzat edo larri modukotzat jotzen diren akatsak indarrean dauden araei jarraituz zuzendu beharko dira. Zuzentzeko epea 6 hilabetekoa izango da.

3.– Akats larriak zuzentzeari dagokionez, aurreko artikuluko 3. apartatutik 8.era bitartean bildutako aurreikuspenak aplikatuko dira.

12. artikulua.– Akats arinak.

1.– Kontrol-organismo jarduleak ikuskapen-aktan halakotzat jotzen dituenak izango dira akats arinak, hargatik eragotzi gabe agindu honetan edo sektoreko gainerako araudian horri buruz ezarritakoa betetzea.

2.– Ikuskapen-aktan arintzat edo arin modukotzat jotzen diren akatsak indarrean dauden araei jarraituz zuzendu beharko dira. Zuzentzeko epea 12 hilabetekoa izango da.

3.– Ikuskapen-aktan akats arinak jaso dituen kontrol-organismoak egiaztatzen badu zuzentzeko epean ez zaiola jakinarazi akatsok zuzendu direla, horren berri emango dio organo eskudunari, agindu honen 9. artikuluan aurreikusitako eran.



13. artikulua.– Dokumentazio-arloko ez-betetzeak.

1.– Nahitaezko dokumentazioa ez edukitzea dokumentazio-arloko ez-betetzetzat joko da, agindu honetan ezarritakoaren ondorioetarako.

Ikus Gida honetan AGINDUAREN 4. artikulurako jasotako argibideak.

2.– Agindu honetako 5.1 artikuluan aipatutako dokumentazioa ez edukitzea zuzendu beharko da, dokumentazio hori aurkeztuta, hain zuzen ere. Urtebetekoa izango da hori zuzentzeko epea.

Ikusi AGINDUAREN 5. artikuluko 1. atalerako eta 13. artikuluko 5. atalerako Gida honetan jasotako argibideak.

3.– 513/2017 Errege Dekretuaren bidez onartzen den suteetatik babesteko instalazioen Erregelamenduaren II. eranskineko 6. puntuan aipatzen den mantentze-eragiketei buruzko dokumentazioa eskuragarri ez izatea zuzendu beharko da, eta, horretarako, dokumentazio bidez egiaztatu beharko da instalazioan behin behintzat gauzatu direla aipatutako II. eranskinean aurreikusitako nahitaezko mantentze-programen eragiketa guzti-guztiak.

Ikusi AGINDUAREN 13. artikuluko 5. atalerako Gida honetan jasotako argibideak.

Apartatu honetako zuzenketak egiteko epea 6 hilabetekoa izango da.

4.– Agindu honetako 17.1 artikuluan aipatutako dokumentazioa ez edukitzea zuzendu beharko da, eta, horretarako, kasuan kasuko instalazioari lotutako epigrafe guztietan gaitutako enpresa instalatzaileak txosten bat aurkeztuko du, agindu honetako II. eranskinaren ereduari jarraituz.

Ikusi AGINDUAREN 13. artikuluko 5. atalerako Gida honetan jasotako argibideak.

AGINDUAREN II. eranskina. Enpresa Instalatzailearen Txostena, Erregistratu Gabeko Suteetatik Babesteko Instalazio Bati buruzkoaren eredia.

Apartatu honetako kasuetan, urtebetekoa izango da zuzenketa egiteko epea.

5.– Dokumentazio-arloko ez-betetzea aldizkako ikuskapen batean atzematen bada, ikuskatzen jardun duen kontrol-organismoaren aurrean egin beharko da zuzenketa.

Izan beharreko dokumentazioaren falta, baita mantentze-lanei buruzko agirien falta ere, titularrak zuzendu beharko du eta agiriak kontrol-erakundeari bidali beharko dizkio.

Kontrol-erakundeak egiaztatu behar du dokumentazioa bat datorrela erregelamenduz eska daitekeen dokumentazioarekin, instalazioa abian jartzeko dataren arabera (zerbitzuan jartzeko datari dagokionez, AGINDUAREN 18. artikuluan jasotakoa hartu behar da kontuan), bai eta dokumentazio horrek ikuskapenaren xede den instalazioa osorik jasotzen duela ere.

Ikusi AGINDUAREN 4. artikuluko 1. atalerako eta 9. artikuluko 2. atalerako Gida honetan jasotako argibideak.



Kontrol-organismoak Administrazioari jakinarazi beharko dio, 9. artikuluan ezarritako eran, titularrak ez-betetzea zuzenduta dagoela egiaztatzeko dokumentazioa forman eta epean aurkeztu duen.

Ikusi AGINDUAren 9. artikuluko 2. atalerako Gida honetan jasotako argibideak.

6.– Artikulu honetan aipatzen diren dokumentazio-arloko ez-betetzeak ez zuzentzeak berekin ekar dezake diziplina-prozedura industrial bat hastea, Segurtasun Industrialari buruzko ekainaren 30eko 81/2020 Dekretuaren 26. artikuluan aurreikusitakoari jarraituz, hargatik eragotzi gabe ez-betetze horiek ez zuzentzeak ekar litzakeen erantzukizunak.

7.– Apartatu honetan xedatutakoaren arabera dokumentazio-falta ez-betetzetzat jotzeaz gainera, erantzukizun penal, administratibo edo zibilak ere izango dira, dokumentazio hori ez izateagatik, ez aurkezteagatik, hala egin beharra zegoenean, edo ez-betetze horrekin lotutako beste edozein egitaterengatik.

IV. KAPITULUA

ERREGISTRATU GABEKO SUTEETATIK BABESTEKO INSTALAZIOAK

14. artikulua.– Definizioa.

1.– Agindu honetan ezarritakoaren ondorioetarako, erregistratu gabeko instalazioak izango dira agindu hau indarrean jartzean jardunean zeudenak, jardun hori segurtasun industrialeko administrazioaren aurrean izapidetu gabe.

Hau da, sail honetako suteetatik babesteko instalazioen erregistroan erregistratuta ez dauden instalazioak.

2.– Definizio hori berdin aplikatuko da, nahiz eta izapidetu ez izanaren arrazoia bi hauetako bat izan: aplikatu beharreko araudian aurreikusitako nahitaezko dokumentazioa aurkeztu ez izana edo instalazioa zerbitzuan jarri zen unean nahitaezko dokumentazioa aurkezteko beharra ezartzen zuen araudirik ez egotea.

Ikusi AGINDUAren 4. artikuluko 2. atalerako Gida honetan jasotako argibideak.

Zerbitzuan jarri zeneko datatzat hartu behar da martxan jarri zeneko data.

3.– Nolanahi ere, zenbait instalazio definizio horretatik kanpo geratuko dira, baldin eta haien araudi espezifikoan berariaz xedatuta badago ez dela beharrezkoa segurtasun industrialeko administrazioari jakinaraztea zerbitzuan hasiko direla.

15. artikulua.– Araubide juridikoa.

1.– Zerbitzuan jartzean indarrean zegoen araudiaren arabera arautuko dira erregistratu gabeko suteetatik babesteko instalazioak, non eta erregelamenduan besterik adierazten ez den.

Zerbitzuan jarri zeneko datatzat hartu behar da martxan jarri zeneko data.

2.– Erregistratu gabeko suteetatik babesteko instalazioek agindu honetako II. eta III. kapituluetan dokumentazio teknikoari eta kontrolari buruz xedatutakoa bete beharko dute, kapitulu horietan eta honetan aurreikusitako baldintzetan.

16. artikulua.– Erregistratu gabeko instalazio baten berri jakinaraztea.

1.– Erregistratu gabeko instalazioen titularrek, Administrazioaren aurrean aurkeztutako jakinarazpen baten bidez, instalazio horien berri jakinarazi ahal izango diote Administrazioari, bai eta honako hauen berri ere: noiz jarri diren zerbitzuan, zer dokumentazio duten eta erregelamenduz ezarritako beste edozein alderdi.

Zerbitzuan jarri zeneko datatzat hartu behar da martxan jarri zeneko data.

Jakinarazpen hori honako balditza guztiak ematen direnean bakarrik egin behar da:

- Suteen aurka babesteko instalazioaren titularrak instalazio hori Sail honetako suteen aurka babesteko instalazioen erregistroan erregistratuta egotearen ziurtasuna ez duenean, instalazioaren kokapenari dagokion Industria Administrazioaren Lurralde Ordezkaritzako Suteen aurka Babesteko Instalazioen Atalari kontsulta egin ondoren, eta
- Sail honi jakinarazi ezin zaionean, ez industria-establezimenduetan eta industriakoak ez direnetan suteen aurka babesteko instalazioak martxan jartzeko Sail honek gaur egun indarrean duen izapidetzearen bidez (hau da, erantzukizunpeko adierazpena aurkeztuta), ez nahitaezko aldizkako ikuskapena eginez.

Ikus Gida honen II. ERANSKINA eta AGINDUAREN 9. artikuluko 2. atalaren argibideak.

Komunikazioa PI-X "Suteetatik babesteko establezimenduen beste komunikazio batzuk/Beste komunikazio batzuk" izapidearen bidez egingo da. Esteka honetatik eskura daiteke:

<https://www.euskadi.eus/prozedura/pi-eu/web01-a2indust/eu/>

Administrazio honek antzematen badu instalazioa ez dagoela erregistratuta, eta erregistratuta egotera behartuta badago, dagozkion zehapen-espeditenteak edo hertsatzeko isuna jartzeko prozedurak hasi ahal izango dira.

2.– Lehenengo apartatuan aurreikusitako jakinarazpenarekin batera, agindu honen 17. artikuluekin bat etorrira aurkeztu beharreko dokumentazioa ere aurkeztu beharko dute.



17. artikuluko dokumentazioa izan ezean, jakinarazpenarekin batera, agindu honen 13.4 artikuluan aipatzen den txostena aurkeztu beharko dute, bai eta 18.2 artikulua arabera aurkeztu beharreko dokumentazioa ere.

3.– Artikulu honetan aurreikusitakoa betetzeko aurkeztutako jakinarazpenak agindu honen III. eranskinean jasotako ereduari jarraituz egingo dira.

AGINDUAren III. Eranskina. Erregistratu Gabeko Instalazio Baten Berri Jakinarazteko Eredua.

4.– Artikulu honetan aurreikusitakoa gorabehera, zenbaitetan agindu honen 9.2 artikuluan aurreikusitako eran jakinarazi ahal izango zaio Administrazioari erregistratu gabeko instalazio baten berri, edo erregelamenduz aurreikusitako beste bideren bat erabilita.

17. artikulua.– Erregistratu gabeko instalazioen titularrek izan beharreko dokumentazioa.

1.– Instalazioak zerbitzuan jartzean indarrean dagoen araudian eskatzen den dokumentazioa izan behar dute erregistratu gabeko instalazioen titularrek. Dokumentazio hori Administrazioaren eta agente laguntzaileen eskura jarri beharko dute.

Nolanahi ere, eskubidea izango dute dokumenturik ez aurkezteko, lehendik Administrazioan aurkeztu badituzte, betiere Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.3 artikuluan aurreikusitakoari jarraikiz.

Ikusi AGINDUAren 4. artikuluko 1. atalerako Gida honetan jasotako argibideak.

2.– Aurreko apartatuan adierazitako dokumentazioa ez edukitzeak ez du inola ere salbuetsiko erregistratu gabeko instalazio baten titularra agindu honen 18.2 artikuluan aipatutako dokumentazioa edukitzeko betebeharretik.

3.– Kontrol-organismo batek aldizkako ikuskapen batean egiaztatzen badu erregistratu gabeko instalazio baten titularrak ez duela artikulu honetako lehen apartatuan adierazitako dokumentazioa, agindu honetako 13. artikuluan aurreikusitakoa aplikatuko da.

18. artikulua.– Instalazioa noiz jarri den zerbitzuan zehaztea.

1.– Erregistratu gabeko instalazioak noiz jarri ziren zerbitzuan zehazteko, instalazioen titularren instalazio-ziurtagiria hartuko da aintzat, halakorik baldin badute.

Suteen aurka babesteko instalazioei buruzko Erregelamendua onartzen duen azaroaren 5eko 1942/1993 Errege Dekretua indarrean jarri aurretik zeuden suteen aurka babesteko instalazioek ez zuten instalazio-ziurtagiririk eduki behar.

Zerbitzuan jarri zeneko datatzat hartu behar da martxan jarri zeneko data.

2.– Ezinezkoa bada aurreko apartatuan aurreikusitako moduan zehaztea instalazioa noiz jarri zen zerbitzuan, data horren zantzu bat ematen duen



dokumentazioa erabili ahal izango da horretarako, hala nola: artxiboetan mantentze-lanen berri ematen duten datu zaharrenak; hasierako jarduera-lizentzia, irekitzekoa edo jardunean jartzekoa; instalazioa dagoen higiezinaren erregistro-inskripzioak; instalazioa diseinatzeko, proiektatzeko edo exekutatzeko sinatutako kontratua, eta data jakiteko balio duen beste edozein datu.

Honako dokumentu hauek ere data horren zantzu bat ematen duen dokumentaziotzat hartu ahal izango dira: 2005eko urtarrila baino lehenagoko industria-instalazioetako industria-erregistroa edo haren eskaera; jabeen erkidegoa eratzekeo eskritura; eraikitze-urtea adierazten duen higiezinaren katastro-erreferentzia; mantentze-lanen bat egin dela egiaztatzen duen dokumentazioa; instalazioko elementuren baten faktura; suteen aurka babesteko ur-horniduraren kontratua; Suteen aurka babesteko instalazioen araudia onartzen duen azaroaren 5eko 1942/1993 Errege Dekretuaren 12. artikuluan ezarritako dokumentazio teknikoa, haren arabera gauzatutako instalazioetarako.

3.– Ezinezkoa bada aurreko bi apartatuetan aurreikusitakoaren arabera zehaztea instalazioa zer egunetan jarri zen zerbitzuan, Administrazioak lehen aldiz noiz izan duen kasuan kasuko instalazioaren berri, egun horixe hartuko da aintzat, eta horren arabera ezarriko da zer araudi aplikatu behar zaion.

Suteen aurka babesteko instalazioaren antzinatasuna ezin bada inola ere datatu, Sail honek instalazioaren berri izan duen egunean indarrean dagoen araudia aplikatuko zaio.

4.– Baldin eta organo eskudunak susmo sendoak badauzka aurreko apartatuetan xedatutakoaren arabera zehaztutako zerbitzu-hasierako data zuzena ez dela pentsatzeko, egoki ikusten dituen egiaztapenak egin ahal izango ditu.

Organo eskudunak egindako egiaztapenen ondorioz beharrezko jotzen bada hasieran finkatutako zerbitzu-hasierako data ez den beste bat ezartzea, organo eskudunak ebazpen arrazoitua emango du horretarako, interesdunari hamar eguneko epean entzunaldia eskaini ondoren.

5.– Artikulu honetan aurreikusitakoaren arabera zerbitzu-hasierako data zehazteko orduan, aintzat hartuko dira instalazioaren erabileran izandako aldaketak eta horiek suteetatik babesteko sistemetan eragindako aldaketak, eraldaketak eta eguneraketak.

6.– Instalazioa zerbitzuan jarri deneko data jasota geratuko da haren titularrek edo hartan jarduten duten agente laguntzaileek Administrazioaren aurrean aurkezten dituzten dokumentuetan.

Instalazioaren titularrak edo kontrol-organismo jarduleak zehaztu ahal izango du, artikulu honen 1., 2., 3. eta 5. apartatuetan aurreikusitakoa aplikatuz, zerbitzu-hasierako data.

7.– Aurreko apartatuetan ezarritakoa gorabehera, dokumentazio-falta ez-betetzetzat joko da, dagokion ikuskapen-aktan, agindu honetako 13. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorritz.

19. artikulua.– Erregistratu gabeko instalazioak inskribatzea.

1.– Segurtasun industrialeko Administrazioak erregelamenduz ezarritako bitartekoren baten bidez baldin badaki jardunean dagoen instalazioren bat erregistratu gabe dagoela, instalazio hori inskribatu beharko da segurtasun



industrialeko instalazioen erregistroan, Segurtasun Industrialari buruzko ekainaren 30eko 81/2020 Dekretuan xedatutakoari jarraituz.

Apartatu honetan aurreikusitakoaren ondorioetarako, agindu honetako 9. eta 16. Artikuluetan ezarritakoak joko dira, betiere, erregelamenduz ezarritako bitartekotzat.

2.– Instalazioa inskribatzeak ez du esan nahi araudia betetzen duenik eta haren titularrak Arauz ezarritako dokumentazioa aurkeztu edo eduki behar ez duenik agindu honetan eta gainerako ordenamendu juridikoan ezarritako eran.

Ikusi Gida honen II. ERANSKINA eta AGINDUaren 2., 4., 14., 16., 17. eta 18. artikuluetarako jasotako argibideak.

20. artikulua.– Erregistratu gabeko instalazioak kontrolatzea.

1.– Organo eskudunak jardunean dagoen instalazio bat erregistratu gabe dagoela baldin badaki, egoki ikusten dituen jarduketak gauzatu ahal izango ditu, bai eta aplikatzekoa den araudian aurreikusitako dokumentazio oro aurkezteko eskatu ere.

Zuzendaritza eskudunak bere eskumenak baliatuz diharduela onartzen dituen auditoretza-planetan, aintzat hartu beharko ditu zein diren erregistratu gabeko instalazioen segurtasun-baldintza espezifikoak.

2.– Suteetatik babesteko instalazioen kontrola gauzatzeko, agindu honetako III. kapituluan aurreikusitako aldizkako ikuskapenak egingo dituzte kontrol-organismoek.

LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA.– Erregelamenduzko bateragarritasuna abenduaren 3ko 2267/2004 Errege Dekretuarekin.

1.– Abenduaren 3ko 2267/2004 Errege Dekretuaren 3. artikuluko 2. apartatuan zehaztutako establezimenduetan dauden instalazioen aldizkako ikuskapenak baliatu ahal izango dira establezimendu horietako erabilera ez-industrialeko eremuetan dauden beste instalazioak ere ikuskatzeko (2267/2004 Errege Dekretua, Establezimendu industrialen suteen aurkako segurtasuneko Erregelamendua onartzen duena). Azken ikuskapen hori agindu honetan, 513/2017 Errege Dekretuan eta bete beharreko gainerako xedapenetan aurreikusitakoaren arabera egingo da. Nolanahi ere, ikuskapen hori egiteko, ezinbestekoa izango da kontrol-organismo jarduleak azken arau horren eremuan dagokion gaikuntza izatea.

2.– Aurreko apartatuan ezarritakoa aplikatu ezin bada, instalazioa hartzen duen establezimenduak 2267/2004 Errege Dekretuaren 3. artikuluen 2. apartatuan finkatutako mugak gainditzen ez dituelako, edo instalazioaren kokalekua sute-sektore independente bat ez delako, halako instalazioen ikuskapena 2267/2004 Errege Dekretuan eta bete beharreko gainerako xedapenetan aurreikusitako forman eta epeetan egingo da.

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.– Eranskinak eguneratzea.



- 1.– Segurtasun industrialaren arloko eskumena duen zuzendariaren ebazpen baten bidez aldatu ahal izango dira agindu honetako eranskinak, haien edukia arau berriei edo garapen teknologikoari egokitzeko.
- 2.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu beharko dira eranskin berriak onartzen dituzten ebazpenak.
- 3.– Indarrean dauden eranskin-eredu guztiak Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoan argitaratuko dira.

Suteen aurkako babesaren sekziorako esteka:

<https://www.euskadi.eus/prozedura/pi-eu/web01-a2indust/eu/>

HIRUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.– Establezimendu industrialen suteen aurkako segurtasuneko Erregelamendua onartzen duen abenduaren 3ko 2267/2004 Errege Dekretuari egindako aipamenak.

Agindu honen testuan abenduaren 3ko 2267/2004 Errege Dekretuari egin zaizkion aipamenak etorkizunean hura ordeztu dezakeen xedapenari ere egindakotzat hartu behar dira (2267/2004 Errege Dekretua, Establezimendu industrialen suteen aurkako segurtasuneko Erregelamendua onartzen duena).

XEDAPEN INDARGABETZAILEA.

Indargabeturik geratzen dira agindu honen bidez araututako arlokoak izanik aginduan bertan aurreikusitakoaren aurkakoak diren xedapen guztiak eta, zehazki, 2014ko uztailaren 30eko Agindua, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuarena, Industrialak ez diren eraikinetako suteen aurkako babes instalazioen ziurtagiri-eredua onartzen duena.

AZKEN XEDAPENA.– Indarrean jartzea.

Agindu hau 2023ko uztailaren 1ean jarriko da indarrean.



I. GIDAREN ERANSKINA: KOMUNIKAZIO-EREDUA

SUTEEN AURKA BABESTEKO IKUSKAPENEN ESPARRUKO KOMUNIKAZIOAK

COMUNICACIONES EN EL MARCO DE LAS INSPECCIONES DE PROTECCIÓN CONTRA INCENDIOS

▪ KOMUNIKAZIOA EGITEN DUEN KONTROL-ORGANISMOA

ORGANISMO DE CONTROL QUE REALIZA LA COMUNICACIÓN

Izena Nombre:

Tf.:

e-mail:

▪ KOMUNIKAZIO HAU DAGOKION IKUSKAPEN-AKTAREN ETA ESPEDIENTEAREN ZK.

Nº DEL ACTA DE INSPECCIÓN Y DEL EXPEDIENTE AL QUE CORRESPONDE ESTA COMUNICACIÓN

Akta zk. Nº del Acta:

Industria Administrazioiko Lurralde Ordezkaritzaren espediente zk.

Nº expediente Delegación Territorial de Administración Industrial:

▪ IKUSKATUTAKO INSTALAZIOAREN TITULARRA TITULAR DE LA INSTALACIÓN INSPECCIONADA

Izena Nombre:

IFZ NIF:

Tf.:

Kalea Calle:

Zk. Nº:

PK-Herria CP-Localidad:

e-mail:

▪ IKUSKATUTAKO INSTALAZIOA INSTALACIÓN INSPECCIONADA

Establezimenduaren erabilera Uso del establecimiento:

Establezimenduaren azalera Superficie del establecimiento:

Kalea Calle:

Zk. Nº:

PK-Herria CP-Localidad:

Kokapenaren osogarría Complemento ubicación:

▪ KOMUNIKAZIO HONEN XEDEA OBJETO DE ESTA COMUNICACIÓN

Jakinarazten da instalazioaren titularrak zuzendu egin duela nahitaezko dokumentazioa ez edukitzeari dagokion dokumentazio-arloko ez-betetzea. Se comunica que la persona titular de la instalación ha subsanado el incumplimiento documental correspondiente a la falta de disposición de la documentación preceptiva.

Jakinarazten da instalazioaren titularrak zuzendu egin duela mantentze-eragiketei buruzko dokumentazioa eskuragarri ez izatea. Se comunica que la persona titular de la instalación ha subsanado la falta de disposición de la documentación relativa a las operaciones de mantenimiento.

Jakinarazten da instalazioaren titularrak aurkeztutako dokumentazioaren arabera, zerbitzuan jartzeko data ondokoa dela zehazten da: ___/___/___. Se comunica que de acuerdo con la documentación presentada por la persona titular de la instalación, se determina que la fecha de antigüedad de la misma es: ___/___/___

Jakinarazten da instalazioaren titularrak zuzendu egin dituela aurkitutako akats arin guztiak. Se comunica que la persona titular de la instalación ha acreditado la subsanación de todos los defectos leves detectados.

Jakinarazten da instalazioaren titularrak ez duela epe barruan egiaztatu honako akats hauek zuzendu dituenik. Se comunica que la persona titular de la instalación no ha acreditado en plazo la subsanación de los siguientes defectos:

“Akatsaren deskribapena Descripción del defecto”

“Kategoria Categoría”

“Akatsaren deskribapena Descripción del defecto”

“Kategoria Categoría”

“Akatsaren deskribapena Descripción del defecto”

“Kategoria Categoría”

Bestelako komunikazioak. Otras comunicaciones:

“Testu librea Texto libre”

.....,korena

....., de..... de.....

(Sinadura eta zigilua Firma y sello)

II. GIDAREN ERANSKINA: SABIen DOKUMENTAZIOA ETA ERREGISTROA, ANTZINATASUNAREN ARABERA

ERAIKIN EZ INDUSTRIALEAN SUTEEN AURKA BABESTEKO INSTALAZIOA:

ANTZINATASUNA	DOKUMENTAZIOA	ERREGISTROAREN EGOERA	HAUTABIDEAK, ERREGISTRATUTA EZ BADAGO
EOA-SBB/96 indarrean sartu aurreko SABIa (1996ko urriaren 30a baino lehenagokoa)	(1) + (2) + (3)	Instalazioak lehenengo aldizkako ikuskapena egin behar izan du, maiatzaren 22ko 513/2017 Errege Dekretuaren laugarren xedapen iragankorrean jasotako epeen arabera, eta, beraz, erregistratuta egon daiteke. Zalantzarik izanez gero, kontsultatu egoera Industria Administrazioaren Lurralde Ordezkaritzan (*)	<ul style="list-style-type: none"> Aldizkako ikuskapenaren bidez.
EOA-SBB/96 indarrean jarri ondorengo SABIa eta maiatzaren 22ko 513/2017 Errege Dekretua indarrean sartu aurrekoa (1996ko urriaren 30etik 2017ko abenduaren 11ra arte)	(1) + (2) + (3) + (4) + (5) + (6)	Instalazioa erregistratuta ote dagoen zalantzarik izanez gero, kontsultatu egoera Industria Administrazioaren Lurralde Ordezkaritzan (*)	<ul style="list-style-type: none"> 1. KASUA: maiatzaren 22ko 513/2017 Errege Dekretuaren laugarren xedapen iragankorrean jasotako epeen arabera aldizkako lehen ikuskapena egin behar izan duten instalazioetarako, aldizkako ikuskapenaren bidez. 2. KASUA: 1. KASUA ez dauden instalazioetarako, edo aldizka ikuskatzeko edo Administrazio honetan erregistratzeko betebeharririk ez duten instalazioetarako, AGINDUAREN 16. artikuluan jasotakoaren arabera jakinarazpenaren bidez, Industria Administrazioaren Lurralde Ordezkaritzari horien egoera kontsultatu ondoren (*).
Maiatzaren 22ko 513/2017 Errege Dekretua indarrean sartu ondorengoko SABIa, (2017ko abenduaren 12tik aurrera)	(1) + (2) + (3) + (4) + (5) + (6)	Instalazio hauek erregistratuta egon behar dira. Instalazioa erregistratuta ote dagoen zalantzarik izanez gero, kontsultatu egoera Industria Administrazioaren Lurralde Ordezkaritzan (*)	<ul style="list-style-type: none"> 3. KASUA: Ekainaren 30eko 81/2020 Dekretua indarrean jarri ondorengo instalazioetarako, Sail honek gaur egun indarrean duen izapidetzearen bidez, industria-establezimenduetan eta ez-industrialetan suteen aurka babesteko instalazioak zerbitzuan jartzeko (Erantzukizunpeko Adierazpena aurkeztuta). 4. KASUA: Ekainaren 30eko 81/2020 Dekretua indarrean sartu aurrekoak diren instalazioetarako, edo aldizka ikuskatzeko edo Administrazio honetan erregistratzeko betebeharririk ez duten instalazioetarako, AGINDUAREN 16. artikuluan jasotakoaren arabera jakinarazpenaren bidez, aldeztu aurretik Industria Administrazioaren Lurralde Ordezkaritzari haien egoera kontsultatuta (*).

(OHAR argigarriak hurrengo orrialdean)

- (1) Instalazioaren antzintasuna egiaztatzen duen dokumentazioa (ikus AGINDUaren 18. artikulurako Gida honetan adierazitako argibideak). Enpresa instalatzaileak sinatutako instalazio-ziurtagiria dagoenean, agiri hori izango da instalazioaren antzintasuna egiaztatzen duen dokumentua.
 - (2) Mantentze-ziurtagiriak, maiatzaren 22ko 513/2017 Errege Dekretuaren arabera.
 - (3) Maiatzaren 22ko 513/2017 Errege Dekretuaren 22. artikuluan eta laugarren xedapen iragankorrean jasotako epeek eragindako instalazioetarako indarrean dagoen aldizkako ikuskapen-akta.
 - (4) Instalazio-ziurtagiria, enpresa instalatzaileak sinatua. 2014ko abuztuaren 25aren ondoren eta 2023ko uztailaren 1a baino lehen sinatutako instalazio-ziurtagiriek bat etorri behar dute Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuaren 2014ko uztailaren 30eko Aginduan jasotako ereduarekin (agindu horren bidez, industrialak ez diren eraikinetan suteen aurka babesteko instalazio-ziurtagiriaren eredia onartzen da), eta, gainera, harpidetze-dataren arabera, azaroaren 5eko 1942/1993 Errege Dekretua edo maiatzaren 22ko 513/2017 Errege Dekretua betetzen dutela adierazi behar dute. 2023ko ekainaren 30aren ondoren sinatutako ziurtagiriek bat etorri behar dute AGINDUAN jasotako ereduarekin.
 - (5) Instalazio-ziurtagiria 2014ko abuztuaren 25etik aurrera sinatuta badago, memoria eta planoak aurkeztu beharko dira, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuaren 2014ko uztailaren 30eko Aginduan jasotakoaren arabera (agindu horren bidez, industrialak ez diren eraikinetan suteen aurka babesteko instalazio-ziurtagiriaren eredia onartzen da). Ziurtagiria 2023ko ekainaren 30a baino geroago sinatu bada, AGINDUaren 5. artikuluan jasotako dokumentazioarekin batera aurkeztu behar da.
 - (6) Sail honetan erregistratuta dagoela egiaztatzen duen agiria (zerbitzuan jartzeko Sail honek emandako dokumentazioa; Zerbitzuan jartzeko Komunikazioaren Agiria, Sail honek zigilatua; Instalazio-ziurtagiria, Sail honek zigilatua; edo Sail honetan erregistratutako Erantzukizunpeko Adierazpena).
- (*) Arabako Administrazioaren Lurralde Ordezkaritza: pci-alava@euskadi.eus
Bizkaiko Administrazioaren Lurralde Ordezkaritza: pci-bizkaia@euskadi.eus
Gipuzkoako Administrazioaren Lurralde Ordezkaritza: pci-gipuzkoa@euskadi.eus

SUTEEN AURKA BABESTEKO INSTALAZIOA INDUSTRIA-ESTABLEZIMENDUAN:

ANTZINATASUNA	DOKUMENTAZIOA	ERREGISTROAREN EGOERA	HAUTABIDEAK, ERREGISTRATUTA EZ BADAGO
Azaroaren 5eko 1942/1993 Errege Dekretua indarrean sartu aurreko SABla (1994ko martxoaren 14a baino lehenagokoa)	(7) + (8) + (9)	Instalazioak lehenengo aldizkako ikuskapena egin behar izan du, maiatzaren 22ko 513/2017 Errege Dekretuaren laugarren xedapen iragankorrean jasotako epeen arabera, eta, beraz, erregistratuta egon daiteke. Zalantzarik izanez gero, kontsultatu egoera Industria Administrazioaren Lurralde Ordezkaritzan (*)	<ul style="list-style-type: none"> Aldizkako ikuskapenaren bidez.
Azaroaren 5eko 1942/1993 Errege Dekretua indarrean sartu ondorengoko eta abenduaren 3ko 2267/2004 Errege Dekretua indarrean sartu aurreko SABla (1994ko martxoaren 14tik 2005eko urtarrilaren 16ra)	(7) + (8) + (9) + (10) + (11)	Instalazio hauek erregistratuta egon behar dira. Instalazioa erregistratuta ote dagoen zalantzarik izanez gero, kontsultatu egoera Industria Administrazioaren Lurralde Ordezkaritzan (*)	<ul style="list-style-type: none"> Aldizkako ikuskapenaren bidez.
Abenduaren 3ko 2267/2004 Errege Dekretua indarrean sartu ondorengoko eta 2023ko martxoaren 14ko Agindua indarrean sartu aurreko SABla (2005eko urtarrilaren 16tik 2023ko ekainaren 30era) eta 2267/2004 ERREGE DEKRETUA APLIKAGARRI EZ ZAIONA (Establezimenduaren okupatutako azalera handitzea edo berezko arrisku-maila handitzea ez dakarten handitzeetan edo erreformatan jarritako SABlak)	(7) + (8) + (9) + (10)	Zalantzarik izanez gero, kontsultatu egoera Industria Administrazioaren Lurralde Ordezkaritzan (*)	<ul style="list-style-type: none"> 1. KASUA: maiatzaren 22ko 513/2017 Errege Dekretuaren laugarren xedapen iragankorrean jasotako epeen arabera aldizkako lehen ikuskapena egin behar izan duten instalazioetarako, aldizkako ikuskapenaren bidez. 2. KASUA: 1. KASUAN ez dauden instalazioetarako, edo aldizka ikuskatzeko edo Administrazio honetan erregistratzeko betebeharrak ez duten instalazioetarako, AGINDUAREN 16. artikuluan jasotakoaren araberako jakinarazpenaren bidez, Industria Administrazioaren Lurralde Ordezkaritzari horien egoera kontsultatu ondoren (*).

- (7) Instalazioaren antzintasuna egiaztatzen duen dokumentazioa (ikus AGINDUAREN 18. artikulurako Gida honetan adierazitako argibideak). Enpresa instalatzaileak sinatutako instalazio-ziurtagiria dagoenean, agiri hori izango da instalazioaren antzintasuna egiaztatzen duen dokumentua.
- (8) Mantentze-ziurtagiriak.
- (9) Maiatzaren 22ko 513/2017 Errege Dekretuaren 22. artikuluan eta laugarren xedapen iragankorrean jasotako epeek eragindako instalazioetarako indarrean dagoen aldizkako ikuskapen-akta.
- (10) Instalazio-ziurtagiria, enpresa instalatzaileak sinatua.
- (11) Sail honetan erregistratuta dagoela egiaztatzen duen agiria (zerbitzuan jartzeko Sail honek emandako dokumentazioa; Zerbitzuan jartzeko Komunikazioaren Agiria, Sail honek zigitatua; Instalazio-ziurtagiria, Sail honek zigitatua; edo Sail honetan erregistratutako Erantzukizunpeko Adierazpena).

(*) Arabako Administrazioaren Lurralde Ordezkaritza: pci-alava@euskadi.eus
 Bizkaiko Administrazioaren Lurralde Ordezkaritza: pci-bizkaia@euskadi.eus
 Gipuzkoako Administrazioaren Lurralde Ordezkaritza: pci-gipuzkoa@euskadi.eus